

Barandiaranek ehun urte

Zabalik, 1990-01-03: 2.

Ehun zifra magikoa izan da aspaldidanik.

Badakigu, eta Ataungo jakintsuak guk baino lehenago, Testamentu Zaharreko Genesis-en Meisesek esaten duena: Matusalen, patriarka hebreoa, 696 urte bizi izan zela.

Garai hartan urteak nola kontatzen zituzten ez badakigu ere!

Baina gure haurtzarokoan, bai, eta hemengo 100 kilometroko abidadura zen Nuvolari eta Chironen "Bugati" gainean Bazkardoko rektan lortzen zuten gorena; harrijasoketan Unanue, Arrate eta bestek erabiltzen zuten 8 arroako zilindrikoa ehun kilokoa zen; lokotxak ere askotan 100 izaten ziren bezalaxe, neronek Andoainen jasoak baititut mutiko nintzeneko jaietan.

Bestalde, ehun urte bizitzeko markak gaur arte iraun du.

Don Joxe Migelek orain egin berria duena.

Halere, gaurko Euskal Herri osoa ez dabil ospakizunetan sartua don Joxe Migelek ehun urte bete dituelako bakarrik, baizik eta urte luze eta asko diren horiek eginkizun mardul eta batez ere adierazkorrak direlako baizik. Atun, bere sorterrria, deskribatzearekin, Euskal Herri osoa, gure mundu berezi honen sorburu magikoak, deskribatu dizkigu, eta euskal gizona aztertzerakoan, gizakia bete-betean du arakatzeko, hain dira orokorrak, unibertsalak, bere ikuspegia eta metodoak; ez, gero, askotan nazioarteko edo internazional hutsa den pedandaria merkea eragin duela, baizik eta zientziaz eta izpirituz hornitua den gainbegiratu harrigarri batetik baizik. Arkeologia eta etnografiako disziplina zientifikoetan ari denean, literaturan eta beste arte nagusietan maisuak egin ohi duten modura; gure herrian Lizardi batek; Antxieta eta gero Arteta eta Chillida eta Oteizak bere eginkizunetan egin duten antzera; musikan, Arriaga, Usandizagak eta Guridik, Remachak eta gaur de Pablo eta Anton Larrauri eta Karmelo Bernaolak bere obreakin egiten jakin duten bezala.

Zeren eta gizona bera baita, azken finean, izadi guztiaren "konpendium" adierazkorrena.

Hau ulertzen ez duten gure herriko "deskubridore" batzuen modernidade guztia "madrileñismo castizo hortera" honetan datza, eta ez dituzte gure herriaren egon-eginak eragindako ekintzak ulertzen. Alegia don Joxe Migelek Ataungo begiak zabal-zabalik dituela hitzegin eta idatzi du aldizkari nagusietan; orain 67 urte, 1922an, Holandan eman zuen hitzaldiaz gero, asko azaldu du munduan zehar, idatzi ditu ehunka liburuxka eta liburu, eta batez ere bere eraginez idatzi dute gure herriaz: Gavel, Lacombe, Lafon frantsesek; Descheemaeker, Humboldt, Bouda, Giese Nahr, Staffe, Schulten germaniarrek; Hubschmid eta Pokorny suizarrek; Alford, Gallop eta Dogson britaniarrek; orain modan dagoen Runaniako Lahovaryk; danimarkar ospetsu den Uhlenbeckek; Schuchardt austriarrak; Farinelli italiarrak, eta abar luze batek; katalanek

ere bai: Bosch Gimpera eta F. Fita; espainiarrak: Ramón Menéndez Pidal; Domingo Fernández Medrano eta Antonio Tovarrek ere.

Don Julio de Urquijo jaunak sortutako *Revista Internacional de Estudios Vascos*-en gehienbat, gure aldizkarietatik, eta bakoitzak bere herrikoetan ere gure etnia eta hizkuntza gai zela.

Lan nagusi hori gainditu eta gero, oraindik lanean!

Eta lanean ari dela heldu zaio, emeki-emeki, jaio zeneko mendeurrena, batere harrotu gabe; Jainkoaren baitan, soseguz. Bere jite paketsu eta bizi hau ondoen jaso duen ekintzetako bat, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere Seme Kuttunari eskaini dion bideo ederra izan da: Gidoi Literarioa Joxe Ramon Zubimendik idatzia: Dokumentazioa eta aholkua, Jesus Altunarena, ederra izan zen sarrerako Paleontologo jakintsuak eskaini zion zatia; Produkzioaren buru Martin Ibarbia, ekintza hauetan ezaguna, izan zen, eta Errealizadore/Zuzendaria, Iñigo Urreaga.

EHUN, zifra magikoa izan da aspaldidanik, eta aurten Euskal Herriaren aitona, aita onak, mendeurrena bete duanean bereziki dirudi magiaz osatutako lanek markatua.